



UNITATE DIDAKTIKOAREN GIDOIA




PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IRAKASLEAK EGITEKO LANA

Fitxa teknikoa
Sinopsia
Zientzia-fikzioa
Proposamen
didaktiko hau
lantzeko aholku
metodologikoak



PELIKULA IKUSTERA JOAN AURRETIK IKASLEEKIN EGITEKO LANA

Filmaren azala eta
izenburutik abiatuta
elkarrizketarako gida
Haurren eskubideak



PELIKULA IKUSI ONDOREN IKASGELAN EGITEKO LANA

Pelikula hitz batean
Leku eta pertsonaien
deskribapena
Zientzia-fikzioa
Elkarrizketa sustatzeko
proposamenak:
- Gurasoak galtzea
- Pazientzia
- Adiskidetasuna
- Robota: adimen artifiziala
- Beldurra / Ausardia
- Agur esatea
Ariketa: Gustua ikertzen
eta irudikatzen



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**

FITXA TEKNIKOA

Izenburua	Terra Willy. Planeta ezezaguna
Herrialdea	Frantzia
Zuzendaria	Eric Tosti
Gidoia	David Alaux, Eric Tosti, Jean Francois Tosti
Urtea	2019
Iraupena	90 min
Musika	Oliver Cussac



SINOPSISIA

Willyk 10 urte ditu eta bere gurasoekin espazio-ontzi batean bidaiatzen du misio batean. Ustekabean, asteroide multzo batek ontzia kolpatzen du eta babes protokoloa aktibatzen da. Ontziak eztanda egin baino lehen, Willy larrialdi-kapsula espazial txiki batean eta bere gurasoak beste batean alde ezberdinetara jaurtiak izaten dira bizia salbatzeko.

Willyren kapsula planeta ezezagun batean lurreratzen da eta bere gurasoak berriz aurkitu arte, bere kabuz biziraun beharko du. Bidaia honetan, gertakari, bizipen eta ikasketa asko izanen ditu.



**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



ZIETZIA-FIKZIOA

Terra Willy, marrazki bizidunetako zientzia-fikziozko pelikula da. Zientzia-fikzioa arte-genero zabala da: etorkizunean edo unibertso ezezagunetan gerta litekeenaz hipotesiak egiten dira, egungo zientzia eta teknika-ezagutzetan oinarrituta. Zientzia eta fantasiazko munduak nahasten dira eta hainbat ezaugarri orokor ditu: etorkizunean edo denbora alternatiboan kokatzen da, kanpo-espazio edo bizitza estralurtarrarekin du harremana eta aurkikuntza zientifiko edo teknologiko berrien aplikazioak agertzen dira: robotak, espazio-ontziak, denbora bidaiak, nanoteknologia, etab.

Zientzia-fikziozko lehenengo pelikula, 1902an Georges Méliès-en "Ilargira bidaia" film mutua izan zen. Eta 1982an oso ezaguna egin zen Steven Spielbergen "E.T. Estralurtarrak"aren haurrentzako pelikula.

Zientzia fikzioaren deskribapen laburra ematen duen bideoa ikusteko, egin klik hemen:

KLIK





**PELIKULA IKUSTERA
JOAN AURRETIK.
IRAKASLEENTZAKO
PROPOSAMENAK**



HIPOTESIAK FORMULATU:

Zer azalpen izan dezake ...?
Zer gertatuko litzateke baldin eta...?

ARRAZOIAK ESKATU:

Ze arrazoi duzu hori esateko/
pentsatzeko?
Zergatik uste duzu...?

IKERTU:

Nola jakin dezakegu ...?


INTERPRETATU:

Nola ikusten duzu zuk gertaera hori?
Norbaitek ba al du ikuspuntu
ezberdin bat?

**PROPOSAMEN DIDAKTIKO
HAU LANTZEKO AHOLKU
METODOLOGIKOAK**

Proposatzen dugun eredu metodologikoak gaitasun intelektuala eta kontzientzia soziala garatzea du oinarri. Ikaslearen ezagutzak, sinismenak, aurreiritziak eta bizipenak izango dira abiapuntu, modu horretan, haien interes eta beharrekinekin konektatuko baitugu, baina urrats bat gehiago ere emango dugu: ikaskuntza berriak barneratu. Aurrera pauso horiek ikasleek beraiek egingo dituzte taldean elkarrekin ikertuz eta horixe izango da proposamen honen ezaugarri adierazgarriena, irakasleak ez baitie ezagutza zehatzik irakatsiko. Elkarrekin hausnartu, pentsatu eta hitz egin beharko dute taldearen ondorioak formulatu eta osatzeko.

Esan beharrik ez dago, irakasle bakoitzak erabakiko duela horietako zein erabili, zein ez edota baten bat erantsi nahi ote duen. Jarduera errazteko galderen zerrenda bat aurkezten dizuegu, ikasgelan elkarriketa arakatzaila sustatzeko baliagarri gerta daitekeena:



KAUSAK ETA ONDORIOAK ERLAZIONATU:

Zein izan daiteke horren kausa?
Zentzuk dira (gertaera horren edo esandakoaren) ondorioak?

ANTZEKOTASUAK ETA EZBERDINTASUNAK BILATU:

Zer dute amankomunean ...?
Zerk egiten ditu ezberdin?

LABURTU:

Hitz gutxitan azal dezakazu...?

HITZEZKOA EZ DEN HIZKUNTZATIK HITZEZKORA ITZULI:

Zer adierazi nahi du keinu horrek?



**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**

**FILMAREN AZALA ETA IZENBURUTIK
ABIATUTA ELKARRIZKETARAKO GIDA**

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldira joan aurretik, ikusiko dugun pelikularen azala eta izenburuari arreta jartzen badiogu; Zer deskubritu dezakegu filmari buruz?

- Zenbat pertsonaia agertzen dira? Nolako itxura daukate?
- Errealak ala fantastikoak dira? Nola dakizu?
- Non biziko dira?
- Irudiak, zer emozio transmititzen ditu? Zergatik?
- Igarri dezakezu, zein izango den pelikularen gaia, bere izenburu eta azalean erreparatuz?

HAURREN ESKUBIDEAK

Zer uste duzu behar duela haur batek zoriontsu, alai edo ongi sentitzeko?

Jakin nahi al duzu zeintzuk diren haurren eskubideak?
Hona hemen elkarrekin irakurtzeko zerrenda:



1

Eskubide guztiak bazterkeriarik gabe jaso behar dituzte. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.

2

Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu, duin eta libre haz daitezen.

3

Jaiotzetik izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.

4

Gizarte Segurantza jasotzeko eskubidea, osasuntsu jaio eta haztekoa; elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.

5

Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea: haien egoera zehatzak eskatzen duen tratamendua, hezkuntza eta zaintza jaso behar dute.



**HITZ EGIN DEZAGUN
PELIKULA IKUSI
OSTEAN.
IKASGELARAKO
PROPOSAMENAK**



6

Nortasuna osoki eta orekatsu garatzeko, familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.

7

Doako eta derrigorrezko hezkuntzarako eskubidea, gutxienik oinarrizko mailetan.

8

Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

9

Abandonatua eta lanean esplotatua, utzia ez izateko eta krudelkeriarik ez jasotzeko eskubidea.

10

Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Oscar Wilde idazleak zioen:

"Haurrak zoriontsu egitea da haur horiek onak izateko biderik egokiena."

- Zer esan nahi du Oscar Wildek? Arrazoia duela uste duzu? Zergatik?
- Zoriontsu eta ongi sentitzen den haurra, ongi portatzen dela uste duzu?
- Gaizki pasatzen ari den eta gaizki sentitzen den haurra nola portatuko dela uste duzu?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



PELIKULA HITZ BATEAN

Borobilean eserita, ikusi duten pelikula **hitz batean** deskribatzeko eskatuko diegu.

- **Zer iruditu zaizue pelikula?**

Partaide bakoitzak bere hitza arbelean idatzi dezake edota irakasleak idazkari lanak egin. Hitzak errepikatzen hasten badira, partaideak elkarri lagunduz pelikula deskribatzen jarraitzeko hitz ezberdinak topatzen saiatu daitezke. Pixkanaka guztion artean, zehaztasun maila sakonagora iristen saiatuko gara.

LEKU ETA PERTSONAIEN DESKRIBAPENA


Borobilean eserita jarraituko dugu eta elkarrekin pelikula gertatzen den lekua eta bertan dauden pertsonaia ezberdinak aztertuko ditugu.

LEKUA: Istorioa non dago kokatua?

- **Non gertatzen da? Toki batean ala gehiagotan?**

Ikasleak erantzun dezakete pelikula guztia leku bakar batean ematen dela: espazioan. Edota espazioa bi alderdietan banatu dezakete: espazio-ontzia eta planeta ezezaguna. Espazio ontzi bat edo bi agertzen diren zehaztu dezakete: hasierakoa (eztanda egiten duena) eta bukaerakoa (gurasoak bere bila itzultzen direna). Behar bada, esan dezakete, beste leku ezberdin bat lur planeta izan daitekela, bukaerako kredituetan agertzen diren argazkiek istorioaren ondorengoa kontatzen jarraitzen dutelako.

Ikasleek identifikatzen dituzten lekuen izenak arbelean idatzi eta ondoren, irakasleak galderen bidez, leku bakoitzaren deskribapen laburra sustatu dezake:





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

ESPAZIO ONTZIA

- Nolakoa da espazio-ontzia? Zenbat gela ditu? Zer egiten dute Willy eta bere gurasoek espazio ontzian? Nola bizitzen da Willy ontzi barruan?
- Ezagutzen al duzu liburu edo pelikula gehiago non espazio ontziak agertzen diren? Antzekoak ala ezberdinak dira?
- Gustatuko litzaizuke espazio ontzi batean bidaiatzea? Zergatik?

PLANETA EZEZAGUNA

- Nolakoa da planteia ezezaguna? Bada zerbait harritu zaituena?
- Nolakoa da hango ingurunea eta paisaia? (zuhaitzak, landareak, loreak, fruituak, klima, paisaia, ...).
 - Lur planetaren antza dauka? Zertan?
 - Lur planetarekin zerikusirik ez duela esango zenuke? Adibide bat jar dezakezu?
 - Planeta ezezagunak, basamortua eta oihana dauka. Lur planetan dauden basamortu eta oihanen antzik al du? Zergatik?
- Nolakoak dira hango animaliak? Lur planetaren antzik al du? Antzekotasun/ezberdintasun horren adibideren bat jarri dezakezu?
- Erreza ala zaila da ezagutzen ez dugun leku batean bakarrik bizirautea? Zergatik?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



Pertsonaiak: Nolakoak dira?

Ikasleei pelikulan agertzen diren pertsonaiengatik galdetuko diegu eta izendatzen dituzten heinean arbelean idazten joango gara.

- Zenbat pertsonaia daude pelikulan?
- Ba al dago pertsonaia nagusiren bat?
- Zeinek kontatzen du istorioa?
- Nolako izaera dauka pertsonaia bakoitzak?
- Pertsonaia bakoitzak bizirauteko erronka bat dauka ala lasai bizi da? Zergatik? Baten batek bizirauteko erronka bat duela uste baduzu, zein erronka mota da?
- Pertsonaia guztiak izaki bizidunak al dira?



	<u>Nolako izaera dauka?</u>	<u>Izaki biziduna da?</u>	<u>Bizirik irauteko esfortzurik egin behar du?</u>
WILLY			
WILLYREN GURASOAK			
BUCK ROBOTA			
FLASH			
KAKALARDOA			
HARRIZKO MUNSTROAK			



ZIENTZIA-FIKZIOA
Antzekotasunak eta ezberdintasunak esploratzen

Terra Willy filma errealitatean, fikzioan ala bietan oinarrituta dago?

- Willy bere gurasoekin bizi den espazio-ontzia, gaur egungo espazio ontzien antzik duela uste duzu?
 - Zer antzekotasunak daude?
 - Espazio ontzian; nola egiten du lo Willyk? Eta gaur egungo astronautak?
 - Espazio ontzian; nola ibiltzen da Willy? Eta gaur egungo astronautak?
- Ezagutzen al dugu Lur planetaz gain, beste planetaren bat, ura eta oxigenoa duenik?
- Zer da robot bat? Etxean robotarik al duzu?
- Buck robot-a bezalakorik existitzen al da gaur egun?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



**ELKARRIZKETA SUSTATZEKO
PROPOSAMENAK**

GURASOAK GALTZEA

Espazio-ontziaren istripuaren ondoren, Willyk gurasoak galtzen ditu, bakarrik gelditzen da eta bere larrialdietarako kapsula ezagutzen ez duen planeta batean lurreratzen da. Kapsulatik atera baino lehen, kezkatuta esaten du: *“Baina, non nago orain?!”*

- Noizbait zure gurasoak galdu dituzu? Adibidez, kalean zaudela, oharkabean galdu zara eta une batez gurasoak ezin aurkiturik egon zara noizbait? Nola sentitzen zara une horietan? Zer emozioak sentitzen dira? (kezkak, larrialdia, beldurra, lasaitasuna, konfiantza, ...)
- Zer sentimendu izan zituen Willyk espazio zabal eta ezezagunean gurasoak galdu zituenean?
- Gaur egun, gera dagoen lekuetan, batzuetan haurrak bere gurasoak galtzen dituzte. Nola uste duzu izan daitekela haur horien egoera?

- Ezagutzen al duzu **“Haurren Eskubideen Hitzarmen Unibertsala”**? Nazioarteko hitzarmen honen helburua da: munduan bizi diren haur guztien ongizatea bermatzea eta egoera latzak bizitzen dituztenean, babesa jasotzeko eskubidea izatea.
- Pelikularen gaiarekin lotuta, hitzarmen honen helburuetako bat hau da: munduko haur guztiei jaio diren familian maitasunez hazteko eskubidea bermatzea. Hona hemen testua:

*“Haurrak babestu egin behar dira mota guztietako abandonatze, krudeltasun eta esplotazioen aurrean.
Haurra, osasunez eta ongizatearekin garatzeko, maitasuna eta ulermena du. Eta ahal den guztietan, gurasoen babesean eta haien zaintzapean hazi beharko da, beti maitasun giroan eta segurtasun moral eta materialarekin. Salbuespen bereziren bat tarteko ez bada, adin txikiko haurra ez da amarengandik bereiziko. Familiarik gabeko haurrak edo bizirauteko bitarteko egokiak ez dituztenak bereziki zaintzeko obligazioa dute autoritate publikoek.”*

- Gerra batean erdian dauden haur guztien eskubideak babestu eta nazioarteko hitzarmena aplikatzen dela esango zenuke? Nola dakizu?



- Willyren gurasoak bere bila itzuliko zirela agindu zioten. Erreza izan al zen Willyrentzat planeta ezezagunean bizirik irautea? Zergatik?
- Kalean noizbait galdu bazara, erreza ala zaila izan da zure gurasoak berriro aurkitzea?
- Gerra baten erdian bizi diren haurrentzat erreza ala zaila da bere gurasoengandik galtzen direnean, berriro aurkitzea? Zergatik?





**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



PAZIENTZIA

- Zenbat denbora itxaron behar izan zuen Willyk bere gurasoak itzuli arte?
- Itxaronaldia luzea ala motza egin zitzaiola esango zenuke?

Lehenengo gauean Willy urduri eta ezinegonarekin dago zerura begira, bere gurasoen zunda bilatzen eta Buck robotak esaten dio, pazientzia eduki behar duela.

- Willyk itxaroteko pazientzia zuen hasieran? Eta ondoren?
- Jendeak bizitzako egoera ezberdinetan pazientzia duela uste duzu?
- Zuk pazientzia daukazu?
- Pazientziarekin jaiotzen gara edota garatzen joan gaitezkeen trebetasuna da?
- Nola sentitzen gara pazientzia dugunean?
- Nola sentitzen gara pazientzia galtzen dugunean?
- Egoera baten aurrean, pazientzia edukitzea ala galtzeak, zer ondorio ekarri ditzake? Adibide bat jarri dezakegu?

ADISKIDETASUNA

Willy larrialdi-kapsula batean bakarrik gelditu eta planeta ezezagun batean lurreratu zen. Denborarekin, Willyk lagunik egin al zuen? Zer esan nahi du "lagun izatea"?



- Willyk lagunik egin zuen? Nola dakizu?
- Nola egiten gara bestearen lagun? Nola egiten da bestea gure lagun? Nola dakigu adiskideak garela? Zerbaitetan antzeman daiteke?
- Ezagutzen dituzun pertsona guztiak zure lagunak dira? Zergatik?
- Zein da lagun eta senideen arteko ezberdintasuna?
- Animalia bat gure laguna izan daiteke? Animalia guztiak?
- Lagunik gabe bizi ahal izango genuke? Zergatik?
- Nola izango litzateke lagunik gabe bizitzea?
- Zer da lagun izatea? Ze harreman mota sortzen da? Zer ezaugarriak ditu?

Robert Louis Stevenson idazlearen esaera batek dio: «Lagun bakar bat bederen dugun bitartean inor ez dago alferrik munduan». Zer uste duzu esan nahi duela?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

ROBOTA: adimen artifiziala

Buck robota, larrialdi lurreratzeko, biziraupen laguntzailea da. Bere izena BUZK0813 unitatea da eta gizakien jardueren datu basea programatua dauka.


- Robotek (makinek) pentsa dezakete?
- Ezberdintasunik al dago, gizakion adimen eta adimen artifizialaren artean?

Robotaren datu basea:

Larrialdi-kapsula planeta ezezagunean irekitzen denean, Willy eta Buck kanpora atera eta Willy beldurtua, triste eta kezkatua agertzen da. Eta Buckek dio:

- » “Aho ertzak beherantz eta hezetasuna begietan, emozio egoera degradatuaren adierazgarriak dira. Gomendioa: pertsona entretenitu”. Orduan, esplorazio ekipoa ematen dio entretenitzeko eta tristura pixka bat pasatzen zaionean dio: “*Egoera emozionala hobetuta. Misioa burututa*”.
- » Willyk txokolatea jaten ikusten duenean, Buckek dio: “aho ertzak gora, atsegina adierazten dute.”
- » “*Besarkadak ematea, (gizakien) egoera emozionala hobetu dezake.*”

- Buckek sentimenduak eta emozioak ulertzen dituela esango zenuke?
- Robotek sentimenduak izan ditzakete?
- Robotak Willy besarkatzen duenean, Willy maite duela esan nahi du?



Gizakia / Robota:

- Zer ezberdintasun dago Willy (gizakia) eta Buck (robota)ren artean?

Arbelan “gizaki” eta “robot” kontzeptuak idatzi eta konparatu ditzakegu. Kontzeptu bakoitzaren azpian, ezaugarri kontrajarriak idazten joan gaitezke, honen bidez; antonimoen zerrenda sortzen joango da.

Hona hemen galdera batzuk konparaketan sakontzeko lagungarriak izan daitezkenak:

- Bucken irribarrea benetako irribarre bat da?
- Robotek emozioak dituzte?
- Robotek inprobisatzeko gaitasunik dute?
- Robot batekin jolastu dezakezu?
- Robotei jolastea gustatzen zaie?
- Robot bat pertsona baten laguna izan daiteke?
- Robotek adiskidetasuna zer den ulertzen dute?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



- Zergatik uxatzen du Buckek, Flash?
- Buckek ulertzen al du Willy esaten dioenean, Flash bere laguna dela? Zergatik?

Buck behin baino gehiagotan Flash uxatzen du, ez zaiolako iruditzen ezertarako balio duenik. Hau da Willy eta Bucken elkarriketa:

Buck: Kontu handiago izan beharko zenuke William jauna. Ez zenuke hor zehar ibili behar, ehizatzeko ere ez. Baina onartuko dizut; harrapaketa ona egin duzu. Oso egokia jateko.

Willy: Barkatu? Zirkuitua erre zaizu? Hau ez da jateko! Hau... (pentsakor) ...Hau nire laguntzailea da "Flash Rider". Baina zuk deitu Flash nahi baduzu.

Buck: Jan behar ez baduzu, izaki horrek ez digu ezertarako balio. Ez da hala, Flash jauna? (beso mekanikoak atera eta Flash beldurtu eta uxatzen du).

Willy: Geldi! Zertan ari zara?! Oso lagun atsegina zen Buck!

Buck: Bai William jauna, ez zirudien izaki hori arriskutsua zenik.

(...)

Bigarren aldiz uxatzen duenean:

Willy: Ez duzu ulertzen ezta? Lagun bat egin dut eta zuk uxatu duzu! Milesker!

Buck: Ez horregatik William jauna.

Willy: Eh?!

Lagun bat egin dut eta zuk uxatu duzu! Milesker!

Buck: Ez horregatik William jauna.

Willy: Eh?!

- Testuinguru honetan zer adierazi nahi du Willyk, "milesker" esaten duenean?
- Zergatik erantzuten dio Buckek "ez horregatik"?
- Elkar ulertzen ari dira?
- Robotek komunikatzeko gaitasuna daukate?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

BELDURRA/AUSARDIA

Egoera arriskutsuek askotan beldurra eragiten digute. Eta ausardia, egoera zail edo arriskutsuei aurre egiteko jarrera da.

Willyk, espazioko istripuan gurasoak galdu zituen eta egoera berri ezezagun bati bakardadean aurre egin behar izan zion. Tristura, kezka eta ezinegonaren ondoren, Buck eta Flashen laguntzarekin planeta ezezagunean bizirauten ikasten joan zen. Bere buruarengan konfiantza hartzen joan arte.



- Badaude egitera ausartzen zaren gauzak eta ez zarenak ausartzen? Zertan datza ausartzea ala ez ausartzearen arrazoiak?
- Beldurra sentimendu edo jarrera garrantzitsua izan daiteke gure bizitzan? Beldurra baliagarria da? Zergatik?
- Ausardia, beldurrarik gabe ulertu daiteke?
- Erabaki garrantzitsu bat hartu behar duzunean, ausardia behar duzu?
- Ausardia izateko zer behar dugu?



Filmaren bukaeran, Willy Buckek bateria agortua zuela eta transmisorea ez zebilela konturatu zen. Horrek erabaki irmo bat hartzera eraman zuen. Flash lo egiten utzi zuen eta bera bakarrik harrizko munstroak zeuden basamortura abiatu zen bateria berriaren bila. Gurasoekin elkartzeko modu bakarra zela bazekielako. Bere adore guztia bildu eta bateriaren bila atera zen.

- Nola iritsi zen Willy ausardia ekintza hori burutzera?
- Ausardia batzuetan arriskutsua bilaka daiteke?
- Zure bizitzan zein une berezietan behar duzu adorea eta ausardia?
- Erraza ala zaila egiten zaigu behar denean ausartak izatea?



**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**



AGUR ESATEA

Bizitzan, ohikoa da maite dugun pertsona edo animalia bati agur esatea. Gustoko dugun egoera bati agur esatea, bukatzen delako. Edota gustoko dugun objektu (jostailu, panpin, ...) bati agur esatea, galdu edo apurtu delako.

Bukaera baten aurrean, agur mota asko bizi ditugu. Eta hainbatetan tristura, negargura, galera (galtzen dugun zerbait edo norbait) eta hutsunea (zegoena uzten duen leku hutsa) sentitu dezakegu.

Denon artean, erantzun bat baino gehiago aurkitu galdera bakoitzeko:

- Zergatik ez zuen Flash Willyrekin Lur planetara joan nahi?
- Zergatik ez zuen Willy Flashekin planeta ezezagunean gelditu nahi?
- Zer gertatu zitzaion elkarri agurra eman ziotenean? Zergatik?
- Noizbait sentitu al duzu zerbaiten edo norbaiten hutsunea zure bizitzan? Nolako esperientzia izan da?
- Bukaerak, hasierak gabe ulertu daitezke?
- Zein bukaera mota izendatu ditzakegu denon artean?






**PELIKULA IKUSI
ONDOREN
IKASGELAN
EGITEKO LANA**

Baliteke ikasle batzuek eszenaren bat gustuko izatea eta beste batzuek ez. Edota alderantziz, orokorrean, ikasleak iritzi berdinekoak izatea. Emandako erantzun ezberdin edo amankomunen arabera, elkarrekin hitz egin eta pentsatzeko tarte hartu daiteke; Zergatik uste dute ikasleek iritzi berekoak ala ezberdinekoak direla?

ARIKETA:
Gustua ikertzen eta irudikatzen

Orokorrean, pelikula **gustatu** zaien galdetu daiteke; erantzun arrazoitua emateko eskatuz.

- **Pelikula gustatu zaizue? Zergatik?**
 - Erantzuna baiezkoa bada: Zer gustatu zaizue? Aipatu dezakezu bereziki gustatu zaizuen une edo eszenaren bat?
 - Erantzuna ezezkoa bada: Zer ez zaizue gustatu? Aipatu dezakezu gustuko ez duzuen une edo eszenaren bat?



- **Ikasleak banaka edo talde txikietan. Gehien gustatu edo gutxien gustatu zaien eszena edo filmaren une bat aukeratzeko eskatuko diegu. Ondoren, aukeratutakoari izenburu bat jartzea. Eta izenburua irudikatzeko modu artistiko baten bidez adieraztea. Hona hemen ideia batzuk:**
 - Marrazki baten bidez irudikatzea
 - Buztina edo plastilinaren bidez figura bat oratztea
 - Idazketa labur baten bidez, hitzez adieraztea
 - Gorputza erabiliz antzeztea edota eszena edo une hori dantzatzea (gorputzaren bidez adieraztea)
- **Denon aurrean aurkeztea eta bukaera balorazioa egitea, ateratzen diren gaien eta adierazpenen inguruan.**
- **Irakaslea eta ikasleek batera, nahi izanez gero; izenburuak bildu eta poema labur batean egituratu ditzakete, izenburu guztiak erabiliz. Gelako horman zintzilikatu daiteke esperientzia guztiaren laburpena izanen den poema.**